

Udara



Zein urrun geratu den ikasturte hasiera. Lagun berriak, behar bada ikastetxe berria, estreinatu zenituen. Hasieran hain gustura hartzen diren liburu berriak zama eta kolore txarra hartu dute. Goizero, zortziak jotzerako autobusa hartu duzu eta, begietako makarrak kentzeko astirik gabe, irakaslearen hitzek esnatu zaituzte.

Goizero autoa hartu eta etxeko habia bero-bero utzita lanera joan zara, etxeko en ogiaren bila, zuri duintasuna eman eta izerdia askatuz, pixkanaka zahartzen ikusi zaituen lanera.

Nik ere goizero lur azpiko herensugea hartzen dut. Jendea piloka sartzen da eta, estu-estu, elkarri begiratu gabe metro bidaia ero hori goizero egiten dut. Aurpegi ezezagunen artean, Madrillgo jende arrotza hurbilagokoa egiten zait bakoitzak bere ametsak eta ahaleginak esku artean dituela pentsatzen dudanean.

Eta, bat-batean, udara usaintzen hasi

gara. Eguna ustekabeen luzatu da eta gauaren izara iluna oso berandu iristen da begietako pertsianak ixten hasi arte.

Ongi irabazitako atsedena hartzeko garaia iritsi da. Nahi duguna eta ahal duguna egiteko garaia. Gehiago lo egin, lagunekin ibili, ordulariaren menpekotasunetik askatu eta kaleetan zehar ibili. Horixe da amesten duguna: aske ibili, gu geure aisialdiaren jabe eta kudeatzaile, inoren kontrolik gabe. Ez da txarra... Baina...

Zerbait gehiago egin dezaket. Besteei nire denbora eskaini, zintzilik ditudan hariak lotu, bukatu gabeko liburu

hura eskutan hartu, urrun dagoen lagun horri eskutitz bat idatzi, bazterrean utzi nuen puzzle hura berriro hasi, niretzat denbora hartu, ohera sartu eta, esnaturik, amets egin. Bakarrik bizi den agureari asteko erosketak egin, herriaren alde zerbait egin. Neurekoitasuna gainditu eta besteen alde... Zerbait egin.

Izanez bai gara, baina ekintzarik gabe ni hitzetan geratzen naiz eta bestea... Bakarrik. Horregatik udarak besteari begiratzen dio, eginez izateko eta izatea ekintzetan aberasteko.

Udara beste aurpegi batez begiratu beharko nuke. Niretzat bakarrik izan ez dadin. Horrela izango da udara aberatsa: zu aberastuz ni ere aberasten naitzelako.